

GIPUZKOA

Gipuzkoan jaio,
Gipuzkoan azi,
Gipuzkoan naiz beti bizi,
Gipuzkoan nai det
nere ezurrak
iltzen naizenian utzi.

Ichaso aundiak
olatuetan,
aizeak chistuz dala ari
esaten dute
zintzo ta gogoz
Gipuzkoatarra ni beti.

Churruka, Elkano,
Legazpi aundia,
Okendo eta Urdaneta,
lotsa bagerik
esanazdaude
gipuzkoatarrak gu gera.

Iñazio, Martin
Agirrekoa,
gizon chit argidotarrak
ziran Azpeiti
ta Bergarako
semeak, gipuzkoatarrak.

Gipuzkoako
mendi politak
alaitsu ¿nun otedira?
Ichaso bazter
ederragorik
alperrikan zabilz billa.

Zerua bera
esan lezake
dala gure Donostia;
alaiagoa
iruditzen zait
dala emen eguzkia.

Alaia dago
nere biotza
alaia nere arpegia;
Gipuzkoa maite
zeradelako
betiko nere erria.

Zeruan dauden
zure semeak
gorde zaizela betiko,
ta eman daiela
indar sendoa
euskaldun ona izateko.

GREGORIO MUJIKA.